

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ibarrangeluko Udala****2024. ikasturtean Euskera ikasteagaitik diru-laguntzak emateko oinarri arau-
tzaileen deialdia.**

Alkateak, Euskera batordeak proposatuta, aurtengo Dekretuaren bidez, ondorengo oinarri hauek onartzea erabaki du interesatuak jakinaren gainean egon daitezen:

1. Xedea

Oinarri hauen helburua honakoa da: Ibarrangelun errolatutako herritarrei euskaltegi homologatu batean edota Udalak adostutako kurtsoetan Euskera ikasteagaitik diru-laguntzak emateko -norgehiagoka sistemaren bidez- arautuko dituzten arauak ezartzea.

Diru-laguntza orokorra izango da.

Diru-laguntzak orokorrak izango direnez, onuradunek gastuen arabera ehuneko laguntzak jasoko dituzte, honako tarteak kontuan harturik:

- Langabezian %100.
- Lanean %50.
- Gehienez 500 euro/urte.

Ekitaldi bakoitzean aurrekontuan dagoen diru kopurua amaitzen denean, ezin izango da dirulaguntza gehigo eman.

Dirulaguntzaren %50aren ordainketa eskaerarekin batera egingo da eta beste %50 kurtso amaieran aprobetxamendua eta asistentzia ziurtarazten duenean.

2. Onuradunak

Ibarrangelu udalerriko herritarrak izan ahalko dira onuradun, euskara ikasteko edota alfabetatzeko ikasketak egiten dituztenean.

Deialdi honetarako, honako betekizunak arautu dira:

- Eskatzailea matrikula eguna baino lehenagotik udalerrian errolatuta egon behar da gutxienez 6 hilabete aurretiaz.
- Eskatzailea euskaltegi homologatu batean matrikulatuta egon behar da.
- Eskatzaileak kurtsoa egutegi osoaren %80a agertu dela ziurtatuko du.

Ikastaroa amaitzerakoan, eta gelditzen den beste %50^a jasotzeko honako agiri hau aurkeztu beharko du:

- a) Kurtsoa probetxuzkoa izan delako ziurtagiria edo kurtsoan egutegi osoaren %80a agertu denaren ziurtagiria.

3. Diru-laguntzaren Partida Presupuestarioa

Deialdi honetara bideratutako kreditua 335. 48101 aurrekontu-partidan kontura izango da, eta 3.000 euro ditu.

Diru-laguntza horiek eta bestelako erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak bateragarriak dira; betiere, diru-laguntzak arautu dituen ordenantzaren arabera.

Alabaina, Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzarekin bateraezinak dira.

4. Salbuespenak

Diru-laguntzak arautu dituen ordenantzan ezarritako arrazoiez gain, ezingo dute diru-laguntzarik jaso eskabideak aurkezteko egunean Udal Ogasunaren zerga-betebeharrak eguneratuta ez dituen eskatzaileak, edo aurretik emandako diru-laguntzak egiaz-



tatzen dituzten agiriak aurkeztu ez dituztenak. Ziurtatzeko agiriak aurkezteak ez dakar, besterik gabe, aurkeztutako justifikazioaren onespena.

5. Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntzak arauotan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie, zehaztuko diren kopuruetan, baldin eta ezarri den aurrekontuaren gehienezko muga gain- ditzen ez bada.

6. Eskabideak balioztatzeko irizpideak

Ikasketak egiteko laguntza-eskabideak ez dira baloratuko. Izan ere, hainbat zenbaterako ezarri dira ikasketa-motaren arabera eta, ondorioz, arauotan ezarritakoa betetzen den egiaztatuko da diru-laguntza eskuratu ahal izateko, aurrekontuaren mugen barruan.

7. Prozeduraren instrukzioa

Prozedura erabakitze-organoa beren-beregi sortutakoa izango da.

Eskabide bakoitza aurkeztutakoan, atxikitutako agiriak aztertu egingo dira eta horrela badagokio hamar egunetako epea emango zaio akatsak zuzentzeko.

Eskatutako baldintzak bete ezker, dagokion diru kopurua ordaindu egingo zaio.

8. Diru-laguntzen zenbatekoa eta ordainketa

Onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa Alkateak emandako ebazpenean adierazitakoa izango da.

Diru-laguntzen zenbatekoa ez da, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango, diru-laguntza bera baka- rrik edo beste diru-laguntzekin batera.

9. Justifikazioa

Laguntzek izaera orokorra dute, euskara ikasketak egitea baldintzari lotuak; hori dela eta, gastuak daudela ulertzen da, eta, beraz, laguntza hauen bidez, horiek finantzatzen lagundu nahi da. Onuradunek ez dute egiaztatu beharko emandako zenbatekoak zertan erabili dituzten.

Diru-laguntza ematen duen organoa izango da horren justifikazio egokia egiaztatze-ko arduraduna.

10. Arau-hausteak, zehapenak eta itzulketak

Arau-hausteen eta zigor-ezarpenen gaineko erabakiak diru- laguntzak arautu dituen ordenantzan aurreikusitakoaren arabera izango dira.

Itzultzeko prozedura eta arrazoiak diru-laguntzak ematea arautu duen ordenantzan aurreikusitakoak izango dira.

11. Araubide juridikoa

Oinarri hauetan jaso ez denerako, diru-laguntzak ematea arautu duen ordenantzan jasotakoa aplikatuko da.

Ibarrangelun, 2023ko urriaren 2an. — Alkatea, Jesús María Ziluaga Acebo